

baketik

Bizizikasi
pedagogiaren monografikoen
Bilduma

Berrikuntzaren
etika
baterako oinarriak
Bizizikasi pedagogia



baketik

Bizirikasi
pedagogiaren monografikoen
Bilduma

Bizirikasi pedagogiaren monografikoen Bilduma
Argitaratzen du: Baketik (Gandiaga Topagunea - Arantzazu - 20567 Oñati)
Inprimaketa: Gertu inprimategia (Oñati)
Lege Gordailua: SS-1788-2010
2011ko otsaila



Berrikuntzaren etika

baterako oinarriak

Bizizikasi pedagogia

Pertsona, gizarte eta hezkuntza mailako prozesuetan eta gatazketan etikaren inguruko ikerketa- eta dibulgazio-zentroa da Baketik. 2006ko urriaren 14an sortu zen Arantzazun (Oñati). Honen bultzatzaileak Arantzazuko Santutegiko Frantziskotarrak izan ziren eta euren erabakiz Baketik erakunde autonomoa, laikoa, akonfesionala eta bere funtzionamenduan anitza eta irekia izatea da.

Zentro honetan bi kontzeptuk egiten dute bat: bakeak eta etikak. Bi oinarri horiek bere izenean adierazten dira: bak(e)+etik. Bere lana bat-egite horren emaitza da, eta norabide horretan hiru ikuspegiekin lan egiten du: pertsona —norberekin bizitzen ikastea—, gizartea —besteekin bizitzen ikastea— eta hezkuntza —pertsona izaten hezten ikastea. Hori guztia, zeharkako ardatz batekin: elkartasunean lan egitea. Oinarri horien gainean era askotako egitasmo eta ekimen ugari garatzen ditu (www.baketik.org).

Orain ekimen horietako batek, ekarpen kritikoa izan nahi duen txosten hau argitaratzera eta zabaltzera darama. Berrikuntzaren etika baterako oinarrien proposamena eskaintzen du. Eta sarrera honetan erantzun beharko litzatekeen galdera da: zergatik Baketik-en sartu-irten hori berrikuntzaren eremuan? Egin nahi dugun ekarpena hiru argudioren bidez adieraziko dugu.

·Lehenik eta behin, berrikuntza ez da eremu arrotza zentro honentzat. Gizarte mailan erabilgarria izan nahi duelako bideragarria izan nahi duen herritarren ekimena etengabeko berrikuntzara kondenatua dago. Jaio zenetik, Baketik-ek ikuspegi berriak dituzten egitasmo zehatzetan islatu izan den berrikuntzaren metodologiarekin lotura izan du: gatazken tratamendua lantze etikoaren ikuspegitik; zenbait balioekin eta helburuekin heztea Antzerki-Forumaren tresnaren bidez; Arantzazutik Asisera proposamena erlijio eta kultura desberdinak elkarren artean ulertzeko. Izan Hezkuntza-Proposamena zortzi ikaskuntzen bidez pertsona izaten hezteko, *bizizikasi* pedagogia bere prestakuntza-eskaintza guztien zeharkako ardatz gisa, Afrikarekiko elkartasunerako eta lankidetzarako modu berria eratzeko proposamena; bakarrik dauden adin-txikiko atzeritarrentzat harrerako osaba-izeben irudia lzeba Proiektuaren bidez... Laburbilduz, lehenengo arrazoia da Baketik etengabeko prozesu berritzaile batean txertatua dagoela.

·Bestetik, zentro honek beste erakundeekin parte hartzen du berrikuntzari buruzko gogoeta- eta erai-

kuntza-prozesuetan, Gipuzkoako edo euskal eremuan zein estatu edo nazioarte mailakoan. Bere filosofia eta esperientzia propioek eskaintzen dioten ikuspegiak, etikaren inguruko lan-ardatzak eta Arantzazun kokatzeak eraman dute Baketik berrikuntzaren inguruko prozesuetan, gogoetetan eta eztabaidetan garatzen den ahalegin sortzailea eta eraikitzailea oso ondo baloratzera, batetik; eta gabezia garrantzitsua antzematera ere, bestetik, eta horren inguruan bere gogoeta eta proposamenak eskaini nahi ditu. Baketik puntu honetan kokatzen da eta hemendik eskainiko du ekarpen hori.

Hirugarren arrazoiak Arantzazu du izena eta hemen aipatzea lekuari eta bertan bizi direnei omenaldi txikia da. Umiltasun-sendaketa ere bada berrikuntza aurkitu berri dugun zerbait dela pentsatzen duenarentzat. Duela 500etik gora urtetik hona, luze iraun duen berrikuntzaren omenezko monumentu bizia izan da Arantzazu. Baketik Arantzazun kokatzen da eta frantziskotarrek bultzatu zuten. Hain zuzen, horregatik, humanismoan oinarritua, giza duintasunaren etikaren errotua dago, eta joera sozial eta humanizatzailea dauka.

Arantzazu balio horiek denboran iraunarazi dituen lekua da. Jatorrizko nortasunari fideltasuna eta garai historiko berri bakoitzean sortutako errealtate soziokultural berriei zabalik egotea da Arantzazu. Baketik leku horretan kokatzea ez da zori hutsa, funtsezko ezaugarria baizik.

Arantzazu herriaren fedearentzat erreferente erlijiosoa da. Dimentsio erlijiosoa Santutegiaren nagusitasuna eta bere nortasun-keinu nagusia adierazten du, baina bere indarrak definizio hori gainditu egiten du. Arantzazu erreferente erlijiosoa da, eta, aldi berean, erreferentzia erlijiosoa baino zerbait gehiago. Erreferentzia-anbibalentzia horiek elkarrekin bizitzea ez da anbigua, proaktiboa eta sortzailea baizik. Oinarri berean batzen ditu aniztasuna, humanismoa eta gizakiaren balio-gorenaren errespetua.

Horrela, gaur egun Arantzazu bila dabilzan pertsonen harrera eta topaleku gisa agertzen da gizartearen aurrean. Sinesten edo sinesten ez dutela ere, edo erlijio bat zein bestea jarraitzen dutela ere, —balio materialetatik edo indibidualistatik harantz— bizitzarako eta elkarbizitzarako gizakiaren berezkoenaren eta unibertsalenaren zentzua bilatzen duten pertsonentzat.

Santutegi horren nortasun historikoa, aldi berean, frantziskotar etorriko printzipioek eratzen dute; baina, aldi berean, biltzen dituen errealtate pertsonalen eta sozialen aniztasunera zabaltzerakoan iturri horrek gainezka egiten du. Arantzazuko historia, bere nortasuna, hasieratik zehaztu gabeko, baina bere ibilbidea aztertzerakoan bistakoak eta sendotuak dauden printzipio eta irizpide multzoaren esparruan jorratu da.

Pertsonari lehentasuna ematea, elkarrizketa, bakea bilatzea, elkartasuna, natura errespetatzea edo giza-



eta espiritualtasun-errealitateen aniztasuna onartzea bezalako printzipioak; eta harreraren, umiltasunaren, neurritasunaren, berezitasunaren, herriarekiko loturaren edota hizkuntzarekiko, artearekiko eta euskal kulturarekiko eta kultura unibertsalarekiko errotzearen alde etengabeko ahaleginari buruz hitz egiten diguten irizpideak.

Erro horiekin, bere historiaren aldi desberdinetan arte-, kultur-, pentsamendu- eta printzipio-sormenaren iturria izatea lortu du Arantzazuk geure gizartearentzat. Arantzazuk etengabeko berrikuntzaren historia irudikatzen du, 500etik gora urtetan zehar egina eta berregina pertsonaren eta inguruaren neurrirra. Bere itxura arkitektonikoaren iraunaldia eta modernotasuna gaur, bost menderen ondoren, adierazten denaren erakusgarri da.

Arantzazuk 2001etik aurrera ekin zion bere azken berregite-berrikuntza prozesuari, frantziskotarrak Santutegian bizitzen hasi zirela 500 urte bete zirenean. Testuinguru horren barruan, sortu zen Baketik, besteak beste, etikaren eta humanismoaren tresnekin berritzea bilatzen duen ekimena. Baketik-en egitasmoa ez da sortzen inguru horren ibilbide historikoa definitzen duten printzipio- eta irizpide-esparrutik kanpo. Gogoeta-prozesua esparru horren eraginpean jartzeko borondateak sortzen da, hain zuzen ere.

Hiru arrazoi horien bat egitetik (esperientzia propioa, berrikuntzaren munduarekin harremanak eta Arantzazun


kokatzea) sortzen da berrikuntzaren etika baterako oinarrien multzoa eskaintzen duen txosten hau. Oinarri horiek onura soziala bilatzen duen edozein berrikuntza-prozesu etikoki bideratzeko baldintza lagungarriak ahalbidetzen dituen esparrua eratzen duten parametroak identifikatu eta sailkatu nahi dituzte (premisak, printzipioak, helburuak, pedagogiak, irizpideak eta abar).

Bere dibulgazio- eta prestakuntza-alderdian, *bizizikasi* pedagogian oinarritzen dira, bizitza hobetzeko pedagogian, hain zuzen. Bizitza hobetzea ez den beste helbururik izan dezake berrikuntzak? *Bizizikasi* pedagogia bi kontzeptu integraturen sinergia da: bizipena eta ikaskuntza. Berrikuntzaren eremu honetara aplikatua, esan nahi du berrikuntza hobe dezakegula zenbait esperientziaren kontzientziatik ikasiz; zehazki, ikaskuntzako lau esperientzietatik ikasiz.

Dokumentu hau gai honi buruz Baketik-ek, ikastaro desberdinen bidez, eskainiko duen prestakuntzaren oinarria da. Bere edukiak, ikusiko den bezala, zerikusirik izango du Arantzazuren historiaren oinarriekin. Berrikuntzak etikak baldintzatu dezan behar du, ez bakarrik bere emaitzen eragingarritasunak. Horrenbestez, berrikuntzaren etika behar du. Bilatzen den emaitza gizartearentzat berrikuntzaren metodologia etikoa eskaintzea da; berrikuntzaren Arantzazu metodologia, nahiago bada.

1. Diagnostikoa

Diagnostikoa oinarri etikoen proposamenaren funtsa da, eta intuizio eta arazo bana, bi gako eta bi ondorio izango ditu oinarrian.



1.1.

Intuizioa: berrikuntza berritza

Bere aplikazio potentziala unibertzala ez bada, berrikuntza-kontzeptuak bere esanahiaren aurka egiten du. Halaber, guztia hobe daiteke, berrikuntza-idea ere bai. Ikuspegi hori ez da arazoa, aukera baizik. Inoiz bikaintzat jotako proposamen guztiekin gertatzen da hori: denbora pasa ondoren, bere erabileraren orokortzeak jatorrizko ideia ilundu egiten du, eta oinarriak ahazten eta urardotzen dituzten azaleko dinamiketan erabiltzen dira praktikan. Hori ez da arraroa, ohikoa baizik. Berrikuntzaren egungo egoeraren azterketak agian fenomeno horrek bere kontzeptualizazioari eta aplikazioei eragiten ari ote den kontuan hartzea gonbidatzen du. Hori da oinarri-proposamen horretatik abiatzen den intuizioa: beharrezkoa izan daiteke berrikuntza berritza.

1.2.

Arazo adierazgarria: gutxi definitzen duen definizioa

Definiziora jaistea beharrezkoa dugu; baina emaitzak ez digu ezer gutxi eskaintzen. Definizio-zerrenda luzea dago oinarrikoenean bat datorrena: prozesu batean emaitzak, errentagarritasuna edo lehiakortasuna hobetzeko sartzen den aldaketa eragingarria da berrikuntza (Osloko Gidaliburua, 2005). Azkenaldian, definizio hori zabaldu egin da, baina ildo berean: prozesu edo produktu baten sektore-balioaren katearen edozein puntutan balioa eranstea da berritza. Berrikuntza eragingarritasunarekin baino «gizartearentzat onuragarri izateko asmoarekin» gehiago lotzen

duen 1990eko definizio bakarra topatu dugu (West & Farr); baina hori ez da berrikuntza-joeren buru dagoena. Azken finean, eragingarria gertatzen den edozein aldaketa bezala ulertzen dugu gaur egun berrikuntza. Gutxi definitzen duen, definizio zehaztugabeegia eta anbigua onenerako eta txarrenerako balio duelako. Litekeena da, esate baterako, «hipoteka zaborrak» horrela ulertutako berrikuntzaren ondorio izatea edota egungo krisi ekonomikoaren eta finantzarioaren iturriak sustrai berbera izatea. Ausartegia izan daitekeen berrikuntzaren ideia baten aurrean gaude.

1.3. Bi gako: muga eta aukera

Diagnostikoak bi gako ditu: lehenengoak mugatu eta bigarrenak ahalbidetu egiten du berrikuntza berritzeko nahiaren garapenaren ahalmena.

- Muga. Berrikuntza, gaur egun ulertzen den bezala, eragingarritasunaren eta ekonomia- edo lehiakortasun-emaizten lorten azkarraren eta zuzenaren menpe dago. Emaitzak dakartzen edozein berrikuntza, alde aurretik, berrikuntza ontzat hartzen da. Eragingarritasunaren bilaketa itsua —guztion onurarako printzipiorik edo helbururik gabekoa— ausartegia da, ez bakarrik eremu horretan baizik eta beste edozeinetan. Ezin da bilatu berrikuntza eragingarritasunaren erreferentzia bakararekin. Hori da, modu ezkorrean hartua, berrikuntza berritzeko eremua mugatzen duen gakoa.
- Aukera. Jakina da berrikuntzak eragingarria izaten saiatu behar duela; baina eragingarritasun hori gaudituko duen helmugara bideratzeko erreferentzia behar du. Eragingortasuna bitartekoa da, ez helburua. Errentagarritasuna eta lehiakortasuna bitartekoak dira. Helburua

unibertsala da: pertsonaren eta gizartearen, bere bizikalitatearen eta elkarbizitzaren zerbitzura egotea. Prozesu berritzaile orok pertsonak eta gizartea hobeto bizitzeko eta elkarbizitzeko zerbitzura dauden oinarri etikoen eta helburuen esparru unibertsalaren baldintzapenetik bilatu behar ditu emaitzak. Hori da, modu baikorrean, berrikuntza berritzeko eremua ahalbidetzen eta zabaltzen duen gakoa.

1.4. Bi ondorio: krisia eta aukera

- Krisia. Berrikuntzaren kontzeptua bere definizioak eta aplikazioen gabeziek dakarten krisi sakonak mehatxatzen du —erabat zauritua ez badago dagoeneko. Krisi horren sustraia, larbatua edo esplizitua, mundu mailako egungo krisi ekonomikoaren eta finantzarioaren berbera da: oinarritzko balioen gabezia, helburuen eta bitartekoen anabasarekin batera, eragingarria den bitartean guztiak balio duelako egitura-ameskeria dakarrena, eta horrekin batera, diru-gosea edo handiuste indibidualista sustatzea, guztion onurarako elkartasunaren kontra.
- Aukera. Berrikuntzaren ikusmolde etikoa ez da bermea, baina ezinbesteko baldintza da bere emaitzak sozialki jasagarriak izan daitezen. Horregatik, geure lanaren hipotesi nagusia honakoa da: berrikuntza metodologikoki eragingarritasun zehaztugabea lortzeari lotu behar zaio, baita pertsonen eta gizartearen zerbitzura eta onurara printzipio, helburu eta irizpide zehatzak ezarriko dituen oinarri etikoen multzoari ere.

2. Berrikuntzaren etikarako oinarrien ezaugarriak

Berrikuntzaren etikaren jokalekua mugatzen duten oinarriak bere testuinguruaren errealitatean eta bere ahalmenearen zabalte osoaren aurrean kokatuko dituzten ezaugarrien multzoari erantzun behar diote. Oinarri horiek ondorengo zazpi ezaugarrien inguruan zehaztuko ditugu:



2.1.

Unibertsalak eta unibertsal bihurtgarriak

Berrikuntzaren etika baten oinarriek unibertsalak eta unibertsal bihurtgarriak izan behar dute. Hau da, kultur-, erlijio- edo gizarte-testuinguru desberdinetan aplikazio potentzial berbera behar dute. Horretarako, gizakiaren berezkoenak diren errealitateetan oinarritu eta bere adostasun-balioak helmen posibleen unibertsalarekin garatu beharko dira.

2.2.

Zeharkakoak berrikuntzaren edozein alderdirekiko

Oinarri horiek bilatzen dituzten emaitzei begiratuta, ez dago desberdintasunik berrikuntzaren alderdi desberdinen artean. Ez dago teknologia-, ekonomia- edo enpresa-berrikuntza, alde batetik, eta gizarte-berrikuntza, bestetik. Edozein berrikuntza soziala da edo ez da. Ondorioz, oinarri horiek zeharkakoak dira berrikuntzaren edozein alderdirekiko.

2.3.

Ez engainagarriak

Batzuetan irudi horretan nahastua ikus daitekeen arren, berrikuntza ez da enpresaren, ekonomiaren edo gizartearen «dieta-miraria». Berrikuntzak metodologia eta diziplina behar du, baina tentagarria da beti. Berrikuntza bakar

batek ere ez ditu ziurtatuak bere emaitzak luze esperimentatu aurretik. Arrakasta azkarra sortzen duen berrikuntza porrot bihur daiteke denbora batera edo, alderantziz, lehen porrota denbora batera aurrerakuntza sendo atzeraz ezin bilaka daiteke. Oinarri etikoen proposamena ez da «formula-miraria» ere, ez da proposamen engainagarria.

2.4.

Prestakuntza-, esperientzia- eta diziplina-baldintzen sortzaileak

Oinarri etiko horiek ez dute ezer bermatzen alde aurretik, besterik gabe, ezin dutelako bermatu. Berrikuntza sozialaren baldintza lagungarriak sor ditzakete zorrotasun etikoaren bidez bakarrik. Hau da, prestakuntza-, esperientzia- eta diziplina-baldintza egokiak zorrotasuna sorrarazteko eta gaitasun-berritzailea bultzatzeko maila humanizatzailean eta bokazio sozial argiaz. Bere itxaropena ez da emaitzak bermatzea baizik eta, bere horretan zentzua izanik, emaitza desiragarriak posible egingo dituzten baldintzak sortzea.

2.5.

Premisa batean oinarrituak

Pertsonek eta gizarteak oreka eta zorientasun-ahalmena galtzen dituzte humanismotik (gizakiaren egiazko balioekin identifikatzea eta bultzatzea) zenbat eta gehiago urruntzen direnean, eta horiek handitzen zenbat eta gehiago garatzen dutenean. Beste modu batera esanda, gizarte baten giza garapena giza duintasunaren etikarekiko konpromiso adostuarekin erabat lotua dago. Hori da berrikuntzaren etika baten oinarrien proposamenak funtsean duen premisa.

2.6.

Lan-hipotesi batekin konprometituak

Aurreko premisaren inguruan, oinarrien proposamen honek ondorengo lan-hipotesia garatzen du: eragingarria izaten soilik ez saiatzea da eragingarriagoa. Berrikuntza-entseguak, eragingarritasun-eskaera zuzenera baino lehenago oinarri etikoetara baldintzatua, aukera handiagoa du eragingarriagoa izaten amaitzeko, etikak jasangarritasun balio bikoitza gehitzen duelako: alde batetik, bultzatzaile zein erabiltzaile gisa prozesuan parte hartzen dutenen artean zentzu eta asetze gehiagoko balio pertsonala; eta bestetik, bidegarritasun eta errentagarritasun sozialeko balio integratzaileak produktuentzat, prozesuentzat eta egitasmoentzat.

2.7.

Ez derrigortzen dutenak, ezta zehatzak direnak ere; ahalbidetzaileak eta iraunkorrak baizik

Aurreko guztiaren ondorioz, oinarri etiko horiek ezin dute eratu prozesu berritzailean ager daitezkeen ustezko kasuistika zehatz guztiak konponduko eta horiei erantzungo dion aginduen errezetategirik. Ezin du izan eta ez du izan behar, horrela, eragingarritasun-bermearen itxaropen faltsua elikatzen ariko litzatekeelako. Oinarri horiek praktikoa eta eragingarria izan behar duen prestakuntza-, esperientzia-, eta diziplina-prozesu iraunkorrean murgiltzea eskaintzen dute, eragile berritzaile bakoitzari eremu bakoitzean oinarri horiek garatuko dituzten irizpide zehatzen eta eragingarrien sektore-identifikazio espezifikoak ahalbidetzeko orduan. Oinarri horiek prozesu iraunkorreko pentsamoldearen barruan dira bultzatzaile eta baldintzen sortzaile.

3. Oinarri-proposamenaren egitura

Berrikuntzaren etika baten oinarrien proposamena gaikako lau ardatz banatan egituratzen da: errealitate-, potentzialtasun-, benetakotasun- eta gizatasun-oinarria. Bere edukia deskribatzen duten atal horizontalek (lerroak) zeharkatutako lau zutabe bertikal dira. Taula orokor hori hiru zatitan banatzen da: Oinarri-esparrua (1.A. koadroa), aplikazio orokorreko esparrua (1.B. koadroa) eta esparru eragilea (1.C. koadroa).



3.1.

Oinarri-esparrua

Proposamenaren oinarria ondorengo atalak ditu: ainguratzek, axiomak, diagnostiko-elementuak eta esanahi praktikoa:

- Gizakiaren errealitate unibertsalenean oinarriak. Lau ardatz horiek gizakiaren berezkoena deskribatzen duten lau errealitateetan oinarritzen dira: errealitate-oinarrian, giza-izaera mugatua; potentzialtasun-oinarrian, bere sormen mugaezina; benetakotasun-oinarrian, kontzientzia morala; eta gizatasun-oinarrian, duintasunaren zentzua.
- Axiomak. Errealitate horiek proposamenaren abiapuntuetaraino eramaten gaituzte: 1. ardatzean, gizakiak jakin, egin ahal eta egin dezakeena ez da mugaezina, mugatua baizik; 2.ean, pertsonak gaintitu egiten duten errealitateak eta ahalmenak ditu; 3.ean, gizaki guztiak kontzientzia dute beren erabakiak hartzeko; eta 4.ean, pertsonok ahalmena dugu berekoi hutsak ez izatea aukeratzeko.
- Berrikuntzari buruzko diagnostiko-elementuak. Lehengo oinarrian, eragingarritasun-bermea berrikuntzaren errealitatea faltsutzen duen espektatiba da; bigarrenean, ezin ditugu emaitzak bermatu, ahalbidetuko dituzten baldintzak etengabe sortu bakarrik; hirugarrenean, oinarri etikoekin berritzea eragingarriagoa da, ez eragingarri hutsa, gizarte-mailan jasagarria delako; laugarrenean, giza garapena giza duintasunaren etikarekiko konpromisoarekin lotua dago.
- Esanahi praktikoa. Lau ardatz horiek gizaki guztiok berdintzen gaituzten alderdiak islatzen dituzte eta, horregatik, garrantzi erabakigarria dute. Praktikara eramanda esanahi zehatza dute: errealitate-oinarriak gizakiaren «nahi dut» aseezina berkokatzen du; potentzialtasun-oinarriak «ahal dut» ustea bultzatzen du; benetakotasun-oinarriak «egin behar dut» adierazpena bultzatzen du; eta gizatasun-oinarriak «naiz» hori sublimatzen du.

3.2. Aplikazio-orokorreko esparrua

Aurreko guztiak oinarri horien aplikazio orokorreko esparrua garatzea ahalbidetzen du, bost eremutan antolatua: printzipio aktiboa, helburua, estrategia pedagogikoa, irizpide gidariak eta oinarri bakoitzak eskaintzen duen balio gehigarria.

·Printzipio aktiboa. Oinarri bakoitzaren printzipio aktiboa muineko osagaia da berrikuntzaren etika artikulat-

zako. Proposamen horren zentzua baldintzatzen eta zehazten duten lau arrazoi nagusiez ari gara: 1. ardatza, neurria; 2. ardatza, sinergia; 3. ardatza, bereizketa; eta 4. ardatza, elkartasuna.

·Helburua. Hain zuzen ere, oinarri bakoitzaren helburua berrikuntza-prozesuen inguruan sortu nahi den azken ondorioa da. Ardatz bakoitzaren asmoa azaltzen du: 1. ardatza, errealitatean kokatzea; 2. ardatza, gizakiaren eta gizartearen sustapena; 3. ardatza, justizia eta elkarbizitzarako askatasuna; eta 4. ardatza, pertsonaren autonomia.

1. koadroa. Berrikuntzaren etika baterako oinarriak

Proposamenaren gaikako oinarriak edo ardatzak	1. ardatza. Errealitate-oinarria	2. ardatza. Potentzialtasun-oinarria	3. ardatza. Benetakotasun-oinarria	4. ardatza. Gizatasun-oinarria
---	----------------------------------	--------------------------------------	------------------------------------	--------------------------------

1.A. koadroa. Oinarri-esparrua

Gizakiaren errealitate unibertsalenean oinarriak	Bere izaera mugatua	Bere sormen mugaezina	Bere kontzientzia morala	Giza duintasunaren zentzua
Axiomak edo abiapuntuak	Giza jakintza, ahalmena edo egitea ez dira mugaezinak, mugatuak baizik	Pertsona gainditu egiten duten errealitatez eta ahalmenez inguratua dago	Euren erabakiei buruz gogoeta egiteko kontzientzia dute gizaki guztiek	Pertsonok berekoi hutsak ez izatea aukeratzeko ahalmena dugu
Berrikuntzari buruzko diagnostiko-elementuak	Eragingarritasun-bermea berrikuntzaren errealitatea faltsutzen duen espektatiba da	Ezin ditugu emaitzak bermatu, ahalbidetuko dituzten baldintzak etengabe sortu bakarrik	Oinarri etikoekin berritzea eragingarriagoa da, ez eragingarri hutsa, gizarte-mailan jasagarria delako	Giza garapena giza duintasunaren etikarekiko konpromisoarekin lotua dago
Oinarri bakoitzaren esanahi praktikoa	Errealitate-oinarriak nahi dut adierazpena berkoatzen du	Potentzialtasun-oinarriak ahal dut ustea bultzatzen du	Benetakotasun-oinarriak egin behar dut adierazpena bultzatzen du	Gizatasun-oinarriak naiz hori sublimatzen du

·Estrategia pedagogikoa. Berrikuntzaren etikak *bizizikasi* pedagogian oinarritzen den formazio zehatza eta dibulgatzailea behar ditu. Oinarritzko lau ikaskuntza ditu ardatz. Honako ikaskuntzak dira: 1. ardatza, izaera mugatua; 2. ardatza, esker ona; 3. ardatza, kontzientziari entzutea; eta 4. ardatza, giza duintasuna.

·Irizpide gidariak. Lau dira eremu bakoitzean eta ustezko bakoitzean aplikazio-jarraibide handiak. Egitasmo berritzailearen eragina eta alternatibak baloratzea bilatzen dute: bere neurriagatik, 1. ardatzean; aurretikako balioagatik, 2. ardatzean; desoreka sozialengatik, 3. ardatzean; eta giza menpekotasunengatik, 4. ardatzean. Lehentasuneko garrantzi praktikoa dute. Horregatik, 1.B. koadroan adierazten badira ere, 1.C. koadroan xehetasunez garatuko ditugu.

·Oinarri bakoitzak eskaintzen duen balio gehigarria. Proposamena osatzen duten oinarri bakoitzak berrikuntzari gehitzen dion balioa jaso da atal honetan: 1. ardatza, bideragarritasun sozioekonomikoa eta ekologikoa; 2. ardatza, sormen eraikitzailea eta fidagarria; 3. ardatza, zuzentasun pertsonala eta komunitarioa; eta 4. ardatza, sublimazioa eta bikaintasun humanizatzailea.

3.3.

Irizpide gidarien esparru eragilea

Aurreko guztiak, oinarria eta aplikazio orokorrerako esparrua, aztarna etiko sendoarekin irizpide gidariak garatzen eta berrikuntzaren metodologia zehazten duten balio eragileen multzoa eraikitzea ahalbidetzen du. Ikusiko den bezala, irizpide gidari bakoitzak tentsioa sorrarazten, konpromisoa hartzea mugiarazten, eta erantzukizuna eskatzen du, eta garapen zehatzeko bost irizpidetan zehazten da. Hogei irizpidetako emaitzak egitasmo etikoen Etika-Eragineko Memoria prestatzeko edukien egiturarako lehen hurbilpena eratuko du.

Proposamenaren gaikako oinarriak edo ardatzak	1. ardatza. Errealitate-oinarria	2. ardatza. Potentzialtasun-oinarria	3. ardatza. Benetakotasun-oinarria	4. ardatza. Gizatasun-oinarria
---	----------------------------------	--------------------------------------	------------------------------------	--------------------------------

1.B. koadroa. Aplikazio orokorreko esparrua

Printzipio aktiboa	Errealitate-printzipioa. Neurria	Potentzialtasun-printzipioa. Sinergia	Benetakotasun-printzipioa. Bereizketa	Gizatasun- printzipioa. Elkartasuna
Helburua	Errealitatean ahalik eta kokapenik onena	Maila pertsonalean eta sozialean sustapen maximoa	Elkarbizitarako justiziarik eta askatasunik handiena	Pertsonaren autonomiarik handiena
Estrategia pedagogikoa (Bizizikasi pedagogia)	Giza izaera mugatuaren ikaskuntza	Esker onekoa izateraren ikaskuntza	Kontzientziari entzutearen ikaskuntza	Giza duintasunaren esanahiaren ikaskuntza
Irizpide gidariak (1.C. koadroan zehaztu dira)	Egitasmo berritzailearen neurrien eragina eta alternatibak baloratzea	Berrikuntzaren eragina eta alternatibak baloratzea aurretikako balioaren gaintetik	Egitasmo berritzailearen era-gina eta alternatibak baloratzea desoreka sozialean	Egitasmo berritzailearen eragina eta alternatibak baloratzea giza menpekotasunetan
Oinarri bakoitzak eskaintzen duen balio gehigarria	Bideragarritasun sozioekonomikoaren eta ekologikoaren balio gehigarria	Sormen eraikitzailearen eta fidagarriaren balio gehigarria	Pertsonarentzat eta gizartearentzat zuzentasunaren balio gehigarria	Sublimazioaren eta bikaintasun humanizatzailearen balio gehigarria

	1. ardatza Errealitate-oinarria: <i>Neurria</i>	2. ardatza Potentzialtasun-oinarria: <i>Sinergia</i>	3. ardatza Benetakotasun-oinarria: <i>Bereizketa</i>	4. ardatza Gizatasun-oinarria: <i>Elkartasuna</i>
--	---	--	--	---

1.C. koadroa. Irizpide gidarien esparru eragilea

Irizpide gidaria	Egitasmo berritzailearen neurrien eragina eta alternatibak baloratzea	Berrikuntzaren eragina eta alternatibak baloratzea, dagoenak duen balioa kontuan hartuz	Egitasmo berritzailearen eragina eta alternatibak baloratzea desoreka sozialetan	Egitasmo berritzailearen eragina eta alternatibak baloratzea giza menpekotasunetan
Sortzen duen tentsioa	Neurria hartzea-neurritik ateratzea	Originaltasuna-aitorpena	Berdintasuna-desberdintasuna	Askatasuna-alienazioa
Dakarren konpromisoa	Helburu handikoa eta neurrizko xedea	Existitzen denaren balioa aitortuz	Guztion onerako zerbitzura zinezko gogoeta	Helburu gisa pertsonak duen lehentasunari errespetua
Eskatzen duen erantzukizuna	Neurriaren erantzukizuna	Askatasunaren erantzukizuna	Zintzotasunaren erantzukizuna	Gizatasunaren erantzukizuna
Garapeneko hogeitaz irizpideko proposamena, berrikuntzarako edozein egitasmotan, Etika-Eraginerako Memoria (EEM) batean zehatz islatzeko	<p>1. Ekintza berritzaileetan proportziorik eza prebenitzea neurri txikiagoko alternatiben azterketaren bidez.</p> <p>2. Gizarte-onura eta jasangarritasun ekonomiko eta eragilea justifikatzea.</p> <p>3. Berrikuntzaren jasangarritasunaren eta onura ekologikoaren lehentasuna argudiatu.</p> <p>4. Baliabideen optimizazioaren eta aurreztearen alderdia, espresuki, kontuan hartzea.</p> <p>5. Bilatzen den berrikuntzaren unibertsaltasunaren kostua, bideragarritasuna eta jasangarritasuna baloratzea.</p>	<p>6. Berrikuntza oinarritzen den aurretiko prozesuen sorreran kontakizuna txertatzea sistematikoki.</p> <p>7. Bultzatzen den berrikuntzak errepikapenik eta bikoizketarik ez duela sortzen zorrotasunez egiaztatzea.</p> <p>8. Ustiapen- eta sinergia-alternatibak aztertzeko dagoenaren balioa erabat identifikatzea.</p> <p>9. Askatasun berritzailea zabaltzeko eremuak, baldintzak eta metodologiak sortzea.</p> <p>10. Besteekiko harremana eta kontrastea protokolizatzea gaitasunaren eta ezagutzaren onena onenarekin lotzeko.</p>	<p>11. Zintzotasunaren eta bidegabekeriarik ezaren konpromiso pertsonalaren eta sozialaren kontzientzia hartzea.</p> <p>12. Kostuen eta onuren azterketa orokorra justifikatzea behartsuenengan eta hirugarren munduan izan dezakeen eraginean arreta berezia jarritz.</p> <p>13. Berrikuntzak eskaintzen duen aberastasun-sortzearen eta -banatzearen balioa, behar bada, arrazoitzea.</p> <p>14. Berdintasunerako ekarpena justifikatzea, behar bada, berrikuntzak eragina izan dezakeen edozein alderditan.</p> <p>15. Alternatiben azterketa desoreka sozialetan zuzenketak eragiteko asmoz, bereziki, egitea.</p>	<p>16. Bultzatzen den berrikuntzak gizakia autonomian eta askatasunean haziarazten duela justifikatzea.</p> <p>17. Egitasmo berritzailearekin itxaropen faltsuak edota engainagarriak ez sortzea arrazoitzea.</p> <p>18. Proposamen berritzailearen balio unibertsal bihurtzea eta humanizatzailea argudiatzea.</p> <p>19. Bultzatzen den berrikuntzak ez duela pertsona bitarteko bezala erabiltzen eta prozesu osoan helburu bezala errespetatzen duela justifikatzea.</p> <p>20. Alternatiben azterketa giza menpekotasunetan zuzenketak eragiteko asmoz, bereziki, egitea.</p>

4. Lau oinarrien deskribapen bertikala

Aurreko orrialdeek oinarrien proposamenaren edukira hurbildu gaituzte zeharkako optika batetik. Orain ikuspegi hau osatzeko, ardatz bakoitzaren ikuspegi bertikalago edo monografi-koago batetik helduko diogu irakurketari.



4.1.

1. ardatza. Errealitate-oinarria

4.1.1. Oinarritze-eremua

Errealitatean kokatzea ezinbesteko baldintza da aurrera egin nahi duen edozein asmorentzat. Giza izaeraren errealitate errealistena mugatua izatea da. Gizaki guztiok, salbuespenik gabe, geure pertsona izatearen ezaugarri eratzailera konpartitzen dugu. Hala ere, arrazionaltasunetik haratago, bizitza kontrolatzeko nahi agortezinak eta utopikoak ere hartzen gaitu. Baina, ezin dezakegu ziurtatu bihar ere zer gertatuko den. Berrikuntzak ez dio ihes egiten ahalguztidun sentitzeko eta geure errealitate mugaezina ahazteko joera horri. Berrikuntzan eragingarritasunezko edozein berme errealitatea faltsutzen duen itzaropena da, eta akats larriak sor ditzakeena. Ez dago inongo formula majikorik inongo ahalegin berritzailearen arrakasta aurretik bermatzeko. Errealitate-oinarriak, gizakion izaera mugatuaren kontzientziak, oinarritzko zeregina du berrikuntzaren etikaren barruan: gizakiaren «nahi dut» aseezina umiltasunean berkokatzen du; hau da, norbere mugak ezagutzean eta ezagutza horren arabera jokatzea.

4.1.2. Aplikazio orokorreko esparrua

Aurreko gogoetaren ondotik, agerikoa da oinarri horren bidez sortu nahi den helburua edo eragina berrikuntza errealitatean ahalik eta modu hobean integratzea dela. Hori lortzeko printzipio aktiboa, osagai nagusia, neurria da. Kasu horretan, helburuetan eustearen sinonimoa da. Geure mugak ahazteko dugun joeraz ohartuta, gomendagarria da geure abiapuntua beti apala izatea. Umiltasuna, horregatik, ezinbesteko plataforma etikoa

da. Behetik gora egitea. Diziplina etiko horretan *bizizkasi* pedagogiak lan didaktiko zehatza garatzen du gizakion izaera mugatuan. Esparru orokor horrek, bestalde, praktikan garatu egiten duen irizpide gidaria du: espresuki eta ikuspegi sozioekonomiko eta ekologiko batetik, egitasmo berritzaile bakoitzaren neurrien eragina eta alternatibak baloratzea. Metodologia horrek berrikuntzari bideragarritasun sozioekonomiko eta jasangarritasun ekologikoko balio gehigarria ekarriko dio.

4.1.3. Irizpide gidari horren gakoa eta esparru eragilea

Irizpide gidaria definitu dugu oraintxe: egitasmo berritzailearen neurrien eragina eta alternatibak baloratzea. Ikuspegi praktikoa batetik, lehentasunezko garrantzia dauka, eta ahalik eta zehaztasun-eragile handienarekin deskribatu behar da.

·Gakoa. irizpide horrek tentsio argia sorrarazten du bultzatu nahi denari neurria hartzearen eta neurritik ateratzearen artean. Neurritik ateratzea eta gigantismoa berrikuntzarentzat erabat kaltegarriak izan daitezke. Neurrien kritikari buruz ari gara. Berrikuntza-egitasmo orotan azaldu, eta objektibotasun- eta zintotasun-plusarekin aztertu behar da. Irizpidea ez da aseptikoa, konpromiso zehatz batera garamatza: gizartearen onurarako helburu handiena bilatzea xede moderatuenarekin. Horregatik, moderazioaren eta neurriaren erantzukizunera dei egiten du.

·Esparru eragilea. Hitzak, konpromisoak eta erantzukizunak askotan eutsi ezinak dira. Horregatik, beharrezkoa da neurri objektiboetan eta ebaluagarrietan zehaztea. Irizpide gidari hori ondorengo bost neurrietan garatu-

ko da. Beste hiru oinarriei dagozkien neurriekin batera, proposamen honen arabera, berrikuntza-egitasmoek izan beharko luketen Etika-Eraginerako Memoriaren (EEM) egitura osatzen dute:

- 1. Ekintza berritzaileetan proportziorik eza prebenitzea neurri txikiagoko alternatiben azterketaren bidez.
- 2. Gizarte-onura eta jasangarritasun ekonomikoa eta eragilea justifikatzea.
- 3. Berrikuntzaren jasangarritasunaren eta onura ekologikoaren lehentasuna argudiatzea.
- 4. Baliabideen optimizazioaren eta aurreztearen alderdia, espresuki, kontuan hartzea.
- 5. Bilatzen den berrikuntzaren unibertsaltasunaren kostua, bideragarritasuna eta jasangarritasuna baloratzea.

4.2.

2. ardatza. Potentzialtasun-oinarria

4.2.1. Oinarritze-eremua

Zorionez, giza errealitatea ez da soilik mugetara murrizten. Sormen mugaezina da aldi berean, izan ere, bere norberak pertzepzio-, sortze- edo sinergia-potentzialari buruz duen edozein aurreikuspen gainditzen duten errealitateek eta ahalmenek inguratzen dute pertsona. Horixe da gizakiaren unibertsalena den horren beste ezaugarri nagusia. Hori horrela izan arren, gizakiak ezin ditu ziurtatu ezta bermatu ere ekintza zehatz batekin lortuko diren emaitzak. Eta hori berrikuntzak ahaztu ohi duen zerbait da. Ezin da lotu eragingarritasun ziurreko

itxaropenera. Pertsonaren sormen mugaezinak ez du emaitzik bermatzen eta, aldiz, horiek ahalbidetuko dituzten baldintzak sortzen ditu etengabe. Ahalmen horrek dagoena hobe eta oker dezake. Horregatik, pertsonaren sormen mugaezina potentzialtasunaren oinarrian sinergiarekin eta elkarri eragitearekin lotu behar da. Beste modu batera esanda, dagoenari duen balioa aitortzearen eta berrikuntzaren jatorrizko ekarpenaren elkarren arteko menpekotasunarekin. Praktikan, potentzialtasun-oinarri horrek gizakiaren «ahal dut» ustea bultzatzen eta eremu eraikitzaile batera bideratzen du.

4.2.2. Aplikazio orokorreko esparrua

Aurreko diagnostikoaren arabera, oinarri honen osagai nagusia edo printzipio aktiboa sinergia da. Sinergia zaharraren eta berriaren arteko elkarri eragiteko eta eragile desberdinen elkarren arteko menpekotasunetan. Helburua sustapen pertsonal eta sozial handiena lortzea da. Sormen-ahalmen pertsonalen eta kolektiboen hedatzeak harreman zuzena du pertsonaren duintasunaren gauzatzearekin. Horregatik, sormen eskertua; hau da, existitzen denaren alderdi baliotsua zintzoki aitortzeko gai dena onena onenarekin lotzeko berrikuntzaren oinarri etikoa da. Dibulgazioari eta formakuntzari begira *bizirikasi* pedagogiak esker onaren zentzuari buruzko ikaskuntza zehatza dinamizatzen du. Aplikazio orokorreko esparru hori garatuko duen irizpide gidaria aurkituko du: berrikuntzaren eragina eta alternatibak espresuki baloratzea aurretik existitzen denaren balioaren gaineratik. Metodologia horrek sormen eraikitzailearen eta fidagarriaren balio gehigarria eskainiko dio berrikuntzari.

4.2.3. Irizpide gidari horren gakoa eta esparru eragilea

Oinarri etiko honen irizpide gidaria, aurretik existitzen denaren balioaren gaineratik, berrikuntzaren eragina eta alternatibak espresuki baloratzea dela adierazi dugu. Beharrezkoa da adierazpen hori esanahi praktikoa gakoa azpimarratuz eta hori zehazten eta garatzen dituzten neurriak aipatuz laguntzea.

·Gakoa. Irizpide gidari horrek originaltasun-berritzaileen eta existitzen denaren aitorten zorrotzaren artean tentsio argia sorrarazten du. Besteen eta aurreko guztiaren ekarria baliorik gabeko gisa gutxiesteak handikeria-akats larriak ekar litzake. Sinergia bilatzea, aldiz, ez da hain bide ausarta. Tentsio hori berrikuntza-egitasmo orotan adierazi behar da. Irizpide horrek existitzen denaren alderdi baliotsua zorrotzazunez aitortzeko konpromisoa hartzea mugiarazten gaitu. Askatasun-erantzukizuna edo askatasun-arduratsua eskatzen du. Sortzeko askatasuna daukagu, baina era berean ekintza berritzaile bakoitzaren ondorioen eta aurrekarien ardura hartzeko arduradunak izateko.

·Esparru eragilea. Irizpide gidari hori ondorengo bost neurrietan garatuko da. Beste hiru oinarriei dagozkien neurriekin batera, proposamen honen arabera, berrikuntza-egitasmoek izan beharko luketen Etika-Eraginerako Memoriaren (EEM) egitura osatzen dute:

- 6. Berrikuntza oinarritzen den aurretiko prozesuen sorreran kontakizuna txertatzea sistematikoki.
- 7. Bultzatzen den berrikuntzak errepikapenik eta bikoizketarik ez duela sortzen egiaztatzea zorrotzazunez.
- 8. Ustiapen- eta sinergia-alternatibak aztertzeko dagoenaren balioa erabat identifikatzea.
- 9. Askatasun berritzailea zabaltzeko eremuak, baldintzak eta metodologiak sortzea.
- 10. Besteekiko harremana eta kontrastea protokolizatzea gaitasunaren eta ezagutzaren onena onenarekin lotzeko.

4.3.

3. ardatza. Benetakotasun-oinarria

4.3.1. Oinarritze-eremua

Ez dira asko gizakiok konpartitzen ditugun ezaugarri berdinak baina, horien artean, kontzientzia morala edukitzea dago, geure erabakiei buruz pentsatzeko. Ezaugarri

komun horiek —mugatua izatea, sormen mugagabea, kontzientzia eta giza duintasuna—, horrela direlako baka- rrik, funtsezko garrantzia eta potentzialtasuna daukate berrikuntzaren eta gizarte-eraldaketaren etika baterako. Etika eta kontzientzia ekonomiatik, enpresatik, teknolo- giatik eta politikatik urruntzea ikuspegi pragmatikoaren gabezia dakarren akatsa da. Oinarri etikoekin berritza eragingarriagoa da, ez eragingarri hutsa, edozein berrikuntzetan jasangarritasun eta errentagarritasun sozial handiagoa eskaintzen duten asetzaren balio pertsonale- rako eta integrazioarako balio komunitarioa dakartzalako. Benetakotasun-oinarriak giza kontzientziaren «behar dut» ustea bultzatzen du. Hasieran etikoa baldin bada ere bukaeran pragmatikoa da «behar» hori.

4.3.2. Aplikazio orokorreko esparrua

Logikoki, oinarri horren printzipio aktiboa erabaki bakoitz- zaren bereizte etikoa da, zehazki, ikerketa-, garpen- eta berrikuntza-prozesuetan alderdi etikoari dagokion tokia eskaintzea. Horren guztiaren helburua ezin garrantzitsu- a da: ahalik eta justiziarik eta askatasunik handienara hurbiltzea edo, beste modu batera esanda, bizitza eta elkarbizitza osatua eta adiskidetu bultzatzea. Horretan laguntzen ez duen berrikuntza ez da berrikuntza beste gauza bat da. Horretan laguntzen duen berrikuntza berrikuntza etikoa da. Eremu zehatz horretan dibulgazio- ari eta formakuntzari begira, *bizizikasi* pedagogiak kontzientziari entzuteari buruzko ibilbide didaktikoa propo- satzen du. Aplikazio orokorreko eremu horrek garatzen duen irizpide gidaria aurkituko du: berrikuntzaren eragi- na eta alternatibak desoreka sozialetan, espresuki, balo- ratzea. Oinarri horren ahalegina berrikuntzari pertsona- rentzat eta gizartearentzat ekitate-balio gehigarria eskaintzea da.

4.3.3. Irizpide gidari horren gakoa eta esparru eragilea

Oinarri honetan, egitasmo berritzailearen eragina eta alternatibak desoreka sozialetan, espresuki, baloratzea da irizpide gidaria. Adierazpen hori esanahi-gakoarekin eta zehazten eta garatzen duten neurriekin osatzen da.

·Gakoa. Irizpide horrek berdintasunaren eta desberdin-

tasunaren artean tentsio zuzena sorrarazten du. Egin dugun guztia gutxi gora-behera balantzaren bi plater horietakoren bat betetzera dator. Horretaz kontzient- zia hartzea eta ondorioz jokatzea esan nahi du. Kontzientzia horrek gogoeta sistematiakoaren konpromiso- ra garamatza eta kontzientziak berdintasunaren ongi nagusiaren zerbitzura. Zintotasunaren eta arbitrario- tasunik ezaren erantzukizuna eskatzen du. Bakar-joko- an geure buruari tranparik ez egiteko eta edozein ekintza berritzailearen ondorioei buruz bereizteko kontzientzia dugu.

·Esparru eragilea. Aurreko oinarrietan bezalaxe, irizpide gidari hori ondorengo bost neurrietan garatuko da. Beste hiru oinarriei dagozkien neurriekin batera, propo- samen honen arabera, berrikuntza-egitasmoek izan beharko luketen Etika-Eraginerako Memoriaren (EEM) egitura osatzen dute:

- 11. Zintotasunaren eta bidegabekeriarik ezaren konpromiso pertsonalaren eta sozialaren kontzient- zia hartzea.
- 12. Kostuen eta onuren azterketa orokorra justifikat- zea behartsuengan eta hirugarren munduan izan dezakeen eraginean arreta berezia jarritz.
- 13. Berrikuntzak eskaintzen duen aberastasun-sort- zearen eta banatzearen balioa, behar bada, arra- zoitzea.
- 14. Berdintasunerako ekarpena justifikatzea, behar bada, berrikuntzak eragina izan dezakeen edozein alderditan.
- 15. Alternatiben azterketa desoreka sozialetan zuzenketak eragiteko asmoz, bereziki, egitea.

4.4.

4. ardatza. Gizatasun-oinarria

4.4.1. Oinarritze-eremua

Gizateriaren aurrerapen nagusienetakoa izan da gizaki guztiok, inongo salbuespenik eta bazterketarik gabe,

duintasun berbera dugula onartzea. Giza duintasuna dugu aukeratzeko gaitasuna dugulako, eta gaitasun horrek helburutzat eta ez bitartekotzat tratatu gaitzaten egiten du. Gauza gehienetan aukeratzeko ahalmena dugu; baina bereziki berekoi eta indibidualista hutsak baino zerbait gehiago izateko. Hemen dago giza izaeraren eta elkarbizitzaren bideragarritasunaren handitasun sinestezina. Berrikuntzan gizatasunaren dimentsio hori ahaztea funtsezkoa ahaztea da. Giza garapen berritzailea giza duintasunaren etikarekiko konpromisoarekin lotua dago. Horrek present egon behar du berrikuntzan funtsezko izaeraz. Giza duintasunarentzat berritzen dugu edo pertsonaren eta gizartearen duintasuna degradatzen dugu. Gizatasun-oinarri horrek pertsonaren «naiz» hori sublimatuko du, gizakiaren barrura begirako eta kontrolatutako ikuskera indibidualistaren eta itxiaren ginetik.

4.4.2. Aplikazio orokorreko esparrua

Berrikuntzarako etika-oinarri horren osagai nagusia elkartasuna da. Elkartasuna bestea bere horretan sustatzeko borondate gisa ulertua. Oinarri horren helburua pertsonen autonomiarik zabalena erraztea da. Hori dakar berekin bere printzipio aktiboak: edozein loturatik, menpekotasunetik edo alienaziotik pertsona piskanaka askatzen laguntzea askeago eta autonomoago izan dadin. Azken finean, horixe da berrikuntza ororen helburua. Horretan zehazten da bere onura soziala eta etikoa. Kasu hobetan, *bizirikasi* pedagogia giza duintasunaren pedagogian oinarritzen da. Aplikazio orokorreko eremu horrek garatzen duen irizpide gidaria honakoa da: berrikuntza-egitasmoaren eragina eta alternatibak giza menpekotasunetan baloratzea. Oinarri horrek berrikuntzaren dinamikari eskaintzen dion balio gehigarria eta bere irizpide gidaria sublimazioa eta bikaintasun humanizatzailea dira. Hau da, edozein asmo berritzailearen helmen humanizatzailean sakontzea eta eraikitzea.

4.4.3. Irizpide gidari horren gakoa eta esparru eragilea

Dagoeneko adierazi den bezala, oinarri honen irizpide gidaria egitasmo berritzailearen eragina eta alternatibak giza menpekotasunetan, espresuki, baloratzea da. Irizpide gidari hori esanahi-gakoan oinarritzen eta bost neurriren esparru eragilean garatzen da.

·Gakoa. Irizpide horrek ekintza orok pertsonaren askatasunaren eta alienazioaren arteko tentsioan duela eragina, eta horren kontzientzia izatea esan nahi du. Pertsonaren osasun fisikoak edo psikologikoak eta osasun sozialak lotura zuzena dute autonomiaren ahalmenare-

kin eta garapenarekin. Mirabe edo menpeko egiten gaituen berrikuntzak ez du izen hori merezi eta, hala ere, existitzen da. Horregatik, funtsezkoa da berrikuntzari pertsonaren lehentasunaren, autonomia eta menpekotasunik eza merezi duen pertsonaren, errespetuarekiko konpromisoa eskatzea. Konpromiso horrek gizatasun-erantzukizuna eskatzen du. Humanizatzea askatasun- eta autonomia-baldintzekin behar bezala biziko eta elkarbiziko diren pertsonen humanizazioan laguntzea da.

·Esparru eragilea. Irizpide gidari horrek ondorengo bost neurrien arabera adierazten den esparru eragilea du. Beste hiru oinarriei dagozkien neurriekin batera, proposamen honen arabera, berrikuntza-egitasmoek izan beharko luketen Etika-Eraginerako Memoriaren (EEM) egitura osatzen dute:

- 16. Bultzatzen den berrikuntzak gizakia autonomian eta askatasunean haziarazten duela justifikatzea.
- 17. Egitasmo berritzailearekin itxaropen faltsuak edota engainagarriak ez sortzea arrazoitzea.
- 18. Proposamen berritzailearen balio unibertsal bihurtgarria eta humanizatzailea argudiatzea.
- 19. Bultzatzen den berrikuntzak ez duela pertsona bitarteko bezala erabiltzen eta prozesu osoan helburu bezala errespetatzen duela justifikatzea.
- 20. Alternatiben azterketa giza menpekotasunetan zuzenketak eragiteko asmoz, bereziki, egitea.

5. Iradokizun praktikoak eta zehatzak

Oinarrien multzo honek berrikuntzaren etika aplikatzeko metodologia irudikatzen du. Eraikuntza horrek Baketik-ek beste eragileekin garatzeko eta partekatzeko borondatea duen hiru iradokizun praktiko eskaintzen ditu.



·Zabaltzea. Berrikuntzari berau oinarrituko duen etika eskaintzeko beharra zabaltzea gizartean –«nondik» eta «zertarako». Mezu hori hezkuntza mundura eta berrikuntza-prozesuak zehazkiago garatzen diren eremuetara helaraziz.

·Prestatzea. Berrikuntza-prozesuetan berrikuntzarako etikan prestakuntza txertatzea aldez aurretik, *bizizikasi* pedagogia oinarri hartuta, enpresa-, politika-, erakunde-, gizarte zibileko elkarte-eremuetara eskain daitekeen prestakuntza, hain zuzen.

·Protokolizatzea eta saiakuntzak egitea. Prozesu berritzaileetan eta horien edozein esparrutan Etika-Eraginerako Memoriak edo azterketak (EEM) egiteko ohitura bultzatzea.

Aitzindariak diren hiru aukera praktikoz ari gara berrikuntzaren etikan prestatzeko eta zabaltzeko programa sistematikorik ez dagoelako –edo gutxienez ez dugu ezagutzen–, eta ez delako existitzen edo ez dugulako ezagutzen prozesu berritzaileetan etikaren eragina aztertzeko proposamen arauturik.

Ikuspegi bikoitz horrek modu negatiboan ez eragin ezezik, berrikuntza sozialaren sorkuntza zein ekonomia-, industria-, teknologia-, hezkuntza-, kultur-, ekologia-egitasmoei dagokiena sendotu, bultzatu eta zabaldu ere egiten du.

Horrek guztiak ez du bermatzen berrikuntzaren eragingarritasuna, ezta emaitza segururik ere, baina aldeko baldintzak sortzen ditu berrikuntzaren arloan erreferentzia aitzindaria eraikitzeko. Dena dela, oinarri horiek prozesu horretan proposamen irekia dira; abiapuntua.

Baketik
Arantzazu, 2011ko otsaila

Eranskina.

Bizizikasi pedagogiari buruz



1. Sarrera gisa

Bizizikasi pedagogiak Arantzazuko Bake zentroaren lau urteko lana laburtzen du eta bere sakoneko filosofia deskribatzen, eta etorkizunerako ekarri estrategiko nagusi gisa eskaintzen da. Baketik-en ekintza eta proiektu guztien oinarria da.

Modu laburtuan adierazita, *bizizikasi* bitzta hobetzeko pedagogia da. Azalpena zabalduz, erantsi daiteke pedagogia batez ari garela, maila pertsonalean zein kolektiboan erabil daitekeena, bitzta pertsonala, bizikidetza eta heziketa hobetzen ikasteko. Bi kontzeptu integraturen sinergiaren emaitza da: bizipena eta ikaskuntza. Geure bizipenaren kontzientziatik ikasiz geure burua hobe dezakegula esan nahi du.

Edozein bizipenak balio dakiguke ikasteko horrez jabetuz gero. Benetan ezagutzen eta ikasten dugu kontzienteki bizi duguna. *Bizizikasi* pedagogia, halere, geure errealitate pertsonaleko zortzi esperientzia zehatzetan oinarritzen da, zortzi ikaskuntzetan eraldatzeko. Gizakiaren bereziena eta unibertsalena osatzen duten eta potentzial didaktiko izugarri duten zortzi esperientzia.

Zortzi esperientzia horiek mugatua izatearen, esker onaren, kontzientziaren, giza duintasunaren, elkarrizketaren, enpatiaren, pazientziaren eta maitasunaren bizipenak dira. *Bizizikasi* pedagogiak horien kontzientzia modu aktiboan eta mailakakoan hartzea proposatzen du bizitza-, bizikidetza- eta heziketa-ikaskuntza iraunkorretan eraldatzeko.

Horietako lau oinarritzko ikaskuntzak dira: gizakion izaera mugatuaren, esker onaren zentzuaren, kontzientziari entzutearen eta giza duintasunaren esanahiaren ikaskuntzak. Beste hiru instrumentalak dira: elkarrizketaren *plusaren*, enpatiaren *plusaren* eta pazientziaren *plusaren* ikaskuntzak. Zortzigarrena eta azkena maitasunaren funtsezko ikaskuntza da.

Bizizikasi pedagogiaren erabilera berrikuntzaren etikarako prestakuntzaren eremuan, oinarritzko lau ikaskuntzetan oinarritzen da; ez horietan bakarrik, baina bai funtsean. Geure hipotesia da izaera mugatuaren, esker onaren, kontzientziari entzutearen eta giza duintasunaren esperientziatik ikasiz berrikuntza hobe dezakegula.

2. Bizizikasi pedagogiak oinarritzat dituen hamar diagnostiko-gako

- Bizitzan, elkarbizitzan eta heziketan desorientazio handiko garaia bizitzen ari gara. Hobetzeko eta berritzeko behar handia dago; baina ez dira erraz aurkitzen orientatuko gaituzten bide eskuragarriak.
- Zorionerako edo berrikuntzarako mirari-dieta ugari daude, esate baterako, eta horiez ez fidatzea komeni da. Komeni da jakitea geure burua hobe dezakegula, baina ez perfektuak izan, mugatuak garelako.
- Adituen edo zainketa espezializatua behar duten metodologiaren menpeko egiten gaituzten hobekuntza-eta berrikuntza-formula eta metodo ugari dago.
- Osasun oneko pertsona, bere kabuz, hobetzeko, berritzeko eta bere errealtate existentziala eta soziala berreraikitze gaitasuna duen izakia da, logikoki inguruarekin harremanetan eta lankidetzan.
- Pertsonak bere burua hobe dezake kontzientzia hartzeke, zentzua bilatzeko eta maitatzeko dituen ahalmenak itxaropena bilatzeko aukera susmagaitzak eskaintzen dizkiotelako.
- Horregatik, nahiz eta ez dagoen formula magikorik eta ezin dugun bere azken emaitza kontrolatu, geure bizitzako filma hobetzeko aktoreak, ikusleak eta gidoilariak izan gaitzake. Bizitza eta gizartea hobetzeko berritu dezakegu.
- Hobeto bizi gaitzake geure buruarekin eta besteekin eta hobeto hez dezakegu, eta berrikuntza-prozesu horiei ekiteko ez da ezinbestekoa ezer berria asmatzea, baizik eta pertsona bakoitzaren baitan dagoena esnatzea.
- Hain zuzen ere, geure oinarritzko esperientzien eta sentimenduen kontzientzia hartzean eta horretan sakontzean bizitza modu autonomoan eta menpekotasunik gabe hobetzeko pedagogia dago.
- Hala ere, hobetzeko prozesu hori estrategia psikologiko, emozional edo teknologiko kontrolagarria baino gehiago da, pertsonaren ikuspegi integrala eskatzen du, eta, beraz, gizaki bakoitzaren dimentsio espiritual propioa biltzen eta dinamizatzen du.
- Aldaketek bere denbora behar dute. Prozesuaren ondorioz gertatzen dira, pixkanaka-pixkanaka. Parado-

xikoki, prozesu horren oinarria ez dago kontrolean konfiantzan baizik.

3. Erreferentzia-esparrua, printzipioa eta helburua

3.1. Pertsonalismoa, erreferentzia-esparru gisa

Egin berri dugun diagnostikoa bat dator, pertsona zer den ulertzeko moduan, pertsonalismoaren korrante filosofikoarekin. Victor Frankl-ek, XX. mendeko beste egile batzuekin batera, horren ondo garatu zuen ikusmoldearekin. *Bizizikasi* pedagogiak pertsonalismoan dauka bere erreferentzia-esparrua.

3.2. Benetakotasunaren etika, printzipio gisa

Egia da pertsona hobetzeko gaitasuna duen izakia dela; baina hori bezain egiazkoa da bakar-jokoan tranpak egiteko gaitasun handia duen izakia dela eta horrenbestez hobetzeko potentzial hori blokeatzen duena. *Bizizikasi* pedagogiaren premisa benetakotasunaren etikarekiko konpromisoa da. Norberaren egia bilatzeko, esnatzeko eta horri aurre egiteko borondatea eta erabakia, batzuetan atsegina ez izan arren.

3.3. Pertsonaren autonomia, helburu gisa

Bizitza hobetzea pedagogia horren helburu nagusia da. Zehatzago esanda, bizitza pertsonala, bizikidetzeta eta heziketa hobetzen ikasten laguntzea. Berritzen ikastea. Baina hori guztia, ñabardura batekin: norberak bere buruarengandik ikastea. Autonomia-tresnak eskaintzea. *Bizizikasi* pedagogia menpekotasunik ezaren alternatiba da.

4. Oinarritzko lau ikaskuntzen abiapuntuak

Bizizikasi pedagogia bizipeneko eta ikaskuntzako zortzi ardatzen inguruan artikulatzen da. Hala ere, aipatu den bezala, berrikuntzaren eremura aplikatua funtsean oinarritzko lau ikaskuntza-esperientzietan oinarritzen da: izaera mugatua, esker ona, kontzientziari entzutea eta giza duintasuna. Segidan, lau esperientzi horietako bakoitzaren gako berri emango dugu modu laburrean. Prestakuntza-ikastaroetan ikaskuntza bakoitza hiru atal nagusitan egituratzen da: zer esan nahi duen, zer dakarren eta sakonean

nola bizi. Hemen lerro gutxi batzuk eskaintzen dira bakoitza kokatzeko.

4.1. Gizakion izaera mugatuaren ikaskuntza

Geure izaera mugatuaren gaineko kontzientzia izanik geure buruak heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Pertsona guztiak aldi batez bakarrik bizi gara, imperfektuak gara, ez dakigu dena, eta ez gara ahalguztidunak. Neure mugak ulerrarazten dit «beste-arena». Neure izaera horixe oinarri zait giza duintasunaren benetako errealitateari erreparatuko dion berrikuntzaren esanahi sakonera heltzeko. Norberaren izaera mugatuaren apaltasunik gabe, berrikuntzarako asmoa harrokeriaren espresioa da. Nola berritu dezaket neure eta inguratzen nauen munduaren izaera mugatuaren esperientziaren ikaskuntza etengabea egin gabe?

4.2. Esker onaren zentzuaren ikaskuntza

Geure gaitzitzeko ahalmenaren gaineko kontzientzia izanik geure buruak heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Izaera mugatua dugu, baina gaitzitzeko ahalmena ere bagara, sortzeko gaitasun mugagabea. Besteak beste, maitasun-, laguntasun-, elkartasun-, eta kreatzio-gaitasuna gara, baita bizitza emateko eta naturaren eta artearen edertasuna baloratzeko gaitasuna ere. Berritzeko gaitasuna gara. Dohainez inguraturik bizi gara, eta gaingitzen gaituzten opari horiek merezi dute geure esker oneko adierazpen kontzientea. Ez gara giza duintasunaren etika ulertzera helduko, baldin eta ez badugu inguratzen gaituen horretan eta inguratzen gaituztenengan giza izaeraren onena bilatzeko borondaterik. Nola berritu dezaket neure barruan eta inguruan dagoen on eta positibo guztia baloratzeko gaitasuna garatzen ez badut?

4.3. Kontzientziari entzutearen ikaskuntza

Gizakiok etikoki jokatzera erabaki dezakegulako kontzientzia izanik geure buruak heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Patologiaren bat izan ezean, jakin beharrekoa da geure kontzientziak beti duela, edozein egoeratan, proposamen etiko bat. Kontzientzia-maila desberdinak ditugu, eta erantzun etikoa maila sakonenean dago. Askotan geure buruari tranpa egiten diogu kontzientziari entzuterako orduan, eta

azaleko mailetan aurkitzen dugunarekin konformatzen gara. Ezinbestekoa da geure kontzientziari zuhurki entzuten ikas dezakegula jakitea. Nola berritu dezaket benetakotasun etikoaz bultzatu nahi dudana aldaketaren zergatiari eta zertarakoari buruz gogoeta egin gabe?

4.4. Giza duintasunaren ikaskuntza

Gizaki guztiok giza duintasun berbera daukagulako kontzientzia izanik geure buruak heztea eta besteak ere horrela heztea esan nahi du. Geure burua bitarteko gisa ikusi ordez helburu gisa ikustea ahalbidetzen digu, aukeratzeko ahalmena daukagulako. Errespetua merezi dugu, eta eskubide berberak ditugu. Giza duintasunaren ikaskuntzak neure duintasun propioaren esperientziaren eta gainontzeko gizakien arteko harreman sakonaren ulertzea dakar. Giza duintasunak pertsonaren onena antzematea ahalbidetzen digu, eta bere errealitate transzendentera hurbiltzen gaitu, geure nortasunaren zentzu sakona ulertarazten digu, eta besteena errespetatzen erakusten. Nola egin dezaket berrikuntza prozesu ez-alienagarria izan dadin, eta giza eta gizarteko mailan askatzailea, edozein helburu berritzailearen ardatz nagusi bezala giza duintasunaren gakoa hartu gabe?

Bizizikasi pedagogiaren bibliografia

- *Ser humano en los conflictos* liburua. Jonan Fernandez. 2006. Alianza Argit.
- *Vivir y convivir. Cuatro aprendizajes básicos* liburua. Jonan Fernandez. 2008. Alianza Argit
- *Pertsona izaten hezi* liburua. Jonan Fernandez. 2010. Baketik Argit.
- Izan Proposamenaren web-dokumentazioa (Baketik)
- «Sufirimendua ulertzea: aurre egiteko eta laguntzeko» txostena (Baketik).
- «Boluntariotzan edo elkartasunean norberaren konpromisoa hobetu» txostena (Baketik).
- «Berrikuntzaren etika baterako oinarriak» txostena (Baketik).
- *Bizizikasi* pedagogiari buruzko informazio gehiago 943-251005 telefonoan, info@baketik.org helbide elektronikoan edo www.baketik.org web gunean.